

BALIO PROPOSAMENA

Proposamena: Berogailudun jaka

Produktu honek, bezeroek hotza ez pasatzea ahalbidetzen du. Proiektu hau sortu baino lehenago, jakaren azpitik arropa geruza asko jarri beharra zegoen sarri hotza pasa ahal ez izateko, neguan batez ere. Produktu hau sortu ondoren aldiz, jaka jartzearekin edo beste arropa geruza bakar batekin hotza jasan gabe igaro dezakezu eguna.

Kalitate handiko jaka izango litzateke, prezioa ez oso altua denentzako eskuragarri egon dadin. Ohiko jaka baten diseinu berdina izango luke baina patrikan berogailua pizteko botoiarekin. Beroa jaka guztian zehar banatuko litzateke jakak barruan duen berogailu instalazioagatik. Segurua izango litzateke, berogailua euritako eta beste hainbat momentuetarako pentsatua baitago.